

# Galtzaundi

Tolosaldeko Herri Aldizkaria

12/7/6 | 367

- 🌀 Ion Diaz eta Garbiñe Biurrun
- 🌀 Euskara lan munduan, Irura eta Anoeta
- 🌀 Ikasle Txokoa
- 🌀 Bidean, Altzotik ezkutukoa ikustera
- 🌀 Ereite elkarte

“Entrenatzaile euskaldunen beharra dugu”

🌀 Jon Ormazabalekin solasean

**FUNERARIA VASCONGADA**  
EHORZKETAK

**902 402 900**

[www.funerariavascongada.com](http://www.funerariavascongada.com)

**TOLOSA**  
Kondeko Aldapa, 5  
943 - 67 00 40

**VILLABONA**  
Larrea Polg., 34 - 1  
943 - 69 48 73



**Euskal Herrian ihesi**

**Osa dezagun guztion artean geure gida sarean**

Non jan dezaket Bermeon? Zer ikusi beharko nuke Maulen? Non egin dezaket lo Tuteran? Baistidarek bertara joateko egun berezirik gomendatzen al dute? Hurbil diezaiozun elkarri Euskal Herria

Herrietako informazio praktikoak, mapak, bideoak, ARGIAko ihesi erreportajeak, erabiltzaileen gomendioak, zeure proposamenak egiteko lekua, zure iragarria 0,50 €-tik aurrera...

**Euskal Herriko lehen turismo webgune interaktiboa**

ihesi.com

argia proiektua

**aldama\_tapia**  
aholkularitza

Foruen Etorbidea\_7  
20400\_TOLOSA Gipuzkoa  
Tel. 943 650 375  
Faxa 943 655 206  
**gtolosa@aldamatapia.com**  
**www.aldamatapia.com**

**SUPER EKO**  
SUPERMERTATUA

Oinezkoen eremua  
Erosketak etxera eramateko zerbitzua

Zumalakarregi, 4  
943 65 09 01  
Tolosa

**konbinatu**  
graduatuak + eguzkitako graduatuak

**97€**

**MULTIÓPTICAS**  
lehen zerbitzu optikoetan

San Frantzisko, 23 • Tel. 943 69 84 70 • TOLOSA

**galtzaundi**  
EUSKARA TALDEA

Argitaratzailea: Galtzaundi Euskara Taldea.  
Helbidea: Nafarroa etorbidea, 6-behea. 20400 Tolosa (Gipuzkoa)  
Telefonoa: 943 655 004  
Faxa: 943 654 983  
e-posta: erredakzioa@galtzaundi.com  
Webgunea: www.galtzaundi.com  
Kordinazioa: Naiara Roldán de Aránguiz.  
Erredakzio taldea: Felix Aiestaran, Igor Mujika

Kolaboratzaileak: Joseba Antxustegietxarte, Txomin Garmendia, Garbiñe Biurrun, J. Agustin Arrieta, Antton Izagirre, Manex Izagirre, Ibon Artola, Unai Igartua, May Gorostiaga, Artubi elkarte, Bilgune Feminista, Amaia Etxetxipia, Ione Gorostarzu, Josu Iztueta, Txarli Gesteira, Aritz Larreta, Begoña Aristi eta Zigor Agirrezabala

Publizitatea: Amaia Doyague  
Banatzaileak: Olatz Garmendia, Juankar Arregi  
Zuzentzailea: Nora Olano  
Maketazioa: Galtzaundi  
Diseinua: Zigor Agirrezabala  
Azala: Galtzaundi  
Inprimategia: Antza.  
Tirada: 4.500 ale  
Lege gordailua: SS-906/91  
Frankeo Itundua: 37/94

GALTZAUNDI aldizkaria doan banatzen da Tolosaldeko 23 herri haueko denda eta tabernetan: Abaltzisketa, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegolan, Elduain, Gaztelu, Hernalde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orea, Tolosa.

Galtzaundik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

**TOLOSako UDALA**

**EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO**

**KUTXA GIZARTE EKINTZA**

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren, Gipuzkoako Foru Aldundiako Kultura eta Euskara Sailaren, Kutxa Fundazioaren, Tolosako Udalaren eta Tolosaldeko hainbat Udalen laguntza jaso du.

Galtzaundin azaldutako iragarleek diruz lagundu dute argitalpena.

**Erreportaia:**  
**“Entrenatzaile euskaldunen beharra dugu”**

16 urte edo gutxiagoko gazteekin Tolosan lanketaren bat egiten duten kirol eta aisialdi taldeekin harremanetan jarri zen Galtzaundi 2011-2012 ikasturtean, euskararen erabilpena zenbatekoa den aztertzeko. Entitatez entitateko proposamenak egiten ari da orain Tolosako Euskara Taldea.

**8-11. orrialdeak**

Aralarko Adiskideak Elkarteko lehendakaria da Jon Ormazabal tolosarra. Elkarteko bazkidea da 1988tik eta aurtengoa-rekin bigarren aldiz izan du ibilaldiaren ardura. Lehenik eta behin zorionak eman behar zaizkie XIV orduko antolatzaileei, 2.300 lagun baino gehiagori, 68,5eko ibilbidean, eguraldi zoragarria lagun, Aralarko ikuspegiez gozatuaz mendi festa zirrargarrian parte hartzeko aukera eman zitelako.

**Elkarrizketa: Jon Ormazabal** **14-16 orrialdeak**

🌀	Iritziaren leihoa: Ion Diaz eta Garbiñe Biurrun	4-5
🌀	Normalizazioa: Euskara lan munduan, Irura eta Anoeta	6-7
🌀	Motzean	12
🌀	Ikasle Txokoa: Karlos Zurutuza kazetaria hemen da berriz ere ikasturtea hasteko	13
🌀	Bidean, Altzotik ezkutukoa ikustera	17
🌀	Ereite Elkarte, birsortzeko prest	18-19

## Saharar haurren oiñuak eta irriak



**Ion Diaz Azkolain**  
Tolosaldea Sahararekin elkarteko kidea

Israelgo gobernu sionistak Palestinan eragindako genozidioa edo inperialismo estatubatuarrak eragindako, Hiroshima eta Nagasiko sarraski nuklearrak, Vietnameko; Irakeko eta Afganistaneko inbasioak edo hainbat eta hainbat herrialdeetako milaka eta milaka haur, heldu edo zahar babesgabeek pairaturiko giza eskubideen bortxaketa etengabea ezagutu ditugu azken hamarkadetan.

XXI. mendean berriz, Saharar herriak azken 37 urtetan justizia, bakea edo autodeterminazioa eta independentzia eskatzeagatik jasan dituen sufrimenduen eta ankerkerien berri izateko eskubidea ukatzen zaigu.

Mendebaldeko Saharan, ukazio honen aurka lan eskerga egiten duen gazte talde ausart bat dago. Media taldea edo *equipe media* deritzona. Talde hori 20 urte eskas dituzten hainbat gaztez osatua dago. Kamerak eta sakelako telefonoak dira euren armak eta berroiekin grabatzen dituzten irudiak interneten zintzilikatzen dituzte. Horretarako, egunero-egunero euren bizitzak arriskuan ipintzen dituzte. Gazte talde honen xedea, Marokoko erregimenak Mendebaldeko Saharako lurralde okupatuetan ezarritako blokeo informatiboa apurtzea da.

Duela hilabete, manifestazio baketsu bat amaitu ondoren, euren kotxean aurkitzen zirenean, 15 eta 26 urteko gazte hauetako bi, Omar eta Belgacem, atxilotu zituzten. Marokoar polizia patruila batek zeramaten kamara ebatsi eta borerrekin kolpatu zituzten. Bi gazteak burutzen duten lan militantean berriro antzemanen gero kartzelan sartzeko mehatxupean askatu zituzten egun bat beranduago.

Baina, zein da zehazki Marokoko erregimenak nazioartean babespean horrenbesteko grinaz Mendebaldeko Saharako lurralde okupatuetan ezkatzen duen errealitatea? Hitz gutxitan esateko, Mendebaldeko Saharan eten-gabe gertatzen diren marokoar polizia errepresio bortitza, giza eskubideen urraketak, atxilotetak, torturak eta etengabeko mehatxuak. Eta, hauen artean esanguratsuenetakoa, saharar haurrek saharar nazioari buruzko inolako aipamenik egin ez dezaten, lehen hezkuntzako ikastetxeak espainiar estatuak marokori saldutako URO Vamtac auto armatuez inguratzea eta ikasgeletan bertan borra eskuetan eta kaskoak buruan ditzuten polizia eta militarrez josita edukitzea. Saharar haurrek Sahararen naziotasunari dagokion edo zer esaten badute, berehala eraso eta batzuetan atxilotu ere egiten dituzte. Hiritik urrun hainbat kilometrotara eramaten dituzte, eta inork entzuten ez dituen oiñu lazgarrien artean bortxatzen dituzte eta botata uzten dituzte.

Zorionez, bada ordea saharar hizkuntza, kultura eta ohiturak inolako mehatxurik edo jazarpenik jasan gabe eskolan ikasteko aukerara duten haurrak. Mendebaldeko Saharako lurralde liberatuetako

Mijik herrian fronte polisarioarekin elkarlanean, Tolosaldea Sahararekin elkarrekin eraikitzen eta hornitzen lagundu duen ikastetxean edo erbestean, Aljeriako Tinduf hirirean inguruko errefuxiatu kanpamenduetako eskoletan.

Hain zuzen ere, Tindufeko (Aljeria) errefuxiatu kanpamenduetatik, oporrak bakean programaren baitan, eskualdeko hainbat udalen eta harrera familien laguntzari esker, udarekin batera azken 12 urtetan bezala eskualdera iritsi berri zaizkigu hainbat haur. Aurten goan, Mohamed, Mohamed Ali, Hassana, Yedehlu, Rakia, Hendu, Bachir, Ahmed, Fatma, Hussein, Uali, Isa, Jilifa, Fatimetu, Mariam, Sida, Abdalahi, Sidahmed eta Hamdi, Alegia, Altzo, Amasa Billa-bona, Anoeta, Ibarra eta Tolosako hainbat familietara edo, Amma, Hassina, Lehzam, Mohamed Moulud eta Nora Ibarrako udalak Maizatza 20 elkarteari utzitako harrera etxera etorri dira.

24 haur guztira, hainbat astez gure artean izango ditugunak. Urtero moduan, helburu nagusiak, errefuxiatu kanpamenduetatik ateratzea eta desertuan urteko garai honetan pairatzen dituzten tenperatura altuetatik babestea, hainbat mediku azterketen bidez haurren osasuna zaintzea, eta elikadura zaintzea direlarik. Inolaz ere ahaztu gabe, ohorea dela guretzat herri oso baten askatasunaren aldeko borondatearen enbaxadoreak diren haur sahararrak, irribarra ahoan dutela, gure herri eta auzoetako plazetan eta parketan edo igerilekuan olgetan ikustea.

**Rosella, Enric eta Ainhoa askatu Autodeterminazioa eta Independentzia Mendebaldeko Sahararentzat**

## Krisiak

Hauxe bera gertatzen zaigu KRISiarekin. KRISI hitza entzun, edozein tokitan, edozein arlotan, eta, esandakoa, KRISI ekonomikoa datorkigu burura; hori eta besterik ez. Eta ez dut nik ukatuko KRISI ekonomikoaren garrantzia; ez dut nik ezkatuko finantza KRISiak hainbat pertsonarentzat duen eragin gordina. Alderantziz, ondo ezagutzen dut errealitatea eta jende asko pairatzen ari den sufrimena. Soberan dakit, bestalde, zein diren KRISI honen azpian dauden arazoak (seguruenik, oraingo honetan konponduko ez direnak): diruaren, finantzen eta banku pribatuen botere mugagabea; pobreen eta aberatsen arteko areagotzen ari diren desberdintasunak, baita gure artean ere; bakea eta demokrazia-erentzat mehatxua diren finantzen merkaturaren nazioarteko diktadura; giza eskubideen urratzeak; etorkinen egoera; zabaldu den egoera honen kontrako ezintasunaren ideia; kultura desberdinen arteko beharrezko adiskidetzea, etab. Hauek dira, bai, arazoak, eta ez dut ikusten epe ertainean behintzat, horietarako inolako konponbiderik.

Baina, egon, badaude beste KRISI batzuk.

Adibidez, gure gaztediaren etorkizuna kolokan dago eta, beharbada, hemendik kanpo bilatu beharko dute. Hori ez da, berez, txarra, baina gizarte batentzat, benetan dramatikoak dira bertan bizi ahal izateko aukerarik eskaini ez izatea.

Edo betiko txiroen etorkizuna (eta iragana eta oraina,



**Garbiñe Biurrin Mancisidor**  
Epailea

Pluralean idatzi dut, bai. KRISI bat baino gehiago dago eta. Egia da, askotan, ideia finko bat daukagunean eta ideia hori askorena bada, horrekin itsutzen garela. Orduan, edozein aipamen entzun, edozein arazo sumatu... eta, danba!, gure ideia komun horri helden diogu.

kasu honetan) ere inoiz baino ilunagoa azaltzen zaigu. Aspalditik gure kaleetan ikusten ditugun etorkinak, euren herrialdeetan etorkizunik ez zuten gazteak, bertako beharretarako (behartsu berriak ere), KRISI ekonomikoaren eraginez, gero eta urrunago daude lehen mundutik. Kooperaziorako eta giza zerbitzuetarako erabiltzen zen dirua murrizten ari da egunetik egunera eta, aldi berean, pobreen etorkizuna eta aukerak ezabatzen ari dira.

Iaz, egun hauetan, "HASERRETUAK" izenburupean idatzi nuen nire kolaborazioa orrialde honetan. Iaz esaten nuen Udaberriak ekarri zigula itxaropen izpirik, batez

ere "haserretuta" geundenoi, eta "haserretuei" eskerrak ematen nizkien.

Haserrea ez zaie pasatu; ez dugu atzean utzi gure amorratioa. Baina ez dugu jakin gure sumina benetako itxaropena bihurtzen; ez dugu lortu gure haserrea eraikitzailea izaten (oraindik ez).

Ez dakit noiz arte eta noraino jasan daitekeen horrelako egoera bat leherketa soziala gertatu gabe. Ez dakit inork badakien ere. Baina badakit egunen batean KRISia bukatu dela (edo gainditu dela) esango digutela. Egun horretatik aurrera, gizarte honen zati batek berriro ere bere ongizatea berreskuratuko du eta ez dio inori galdetuko nola

edo zergatik eman den amaitutzat KRISia; onartuko du eta kito, ezer ikertu gabe, azalpenik eskatu gabe.

Orduan, KRISI hau bukatuta egon daiteke, baina ez benetako KRISia, KRISI potoloa, egoera hau posible egiten duen sistemak indarrean jarraituko duelako (eta, beharbada, inoiz baino sendoago).

Egun horretan, zoritxarrez, finantza KRISia gaindituta baldin badago ere, gure KRISia, gure seme-alabena, munduko pertsona pobreen KRISia... hor egongo dira, erremediorik gabe eta, berriro ere, konponbiderik gabe. Sistema honek guztion berdintasuna lortzeko eskaera justuarentzat.

# Euskara lan munduan, Irura eta Anoeta

Galtzaundi Euskara Taldeak, Irurako eta Anoetako udalekin batera, "Euskara lan munduan, Irura eta Anoeta" egitasmoan parte hartzen duten enpresei esker ona erakutsi nahi izan die.

Erredakzioa

Galtzaundiko Amaia Doyague, Anoetako alkate Peio Estanga, Irurako udaleko euskara teknikari Idoia Olano eta egitasmoan parte hartzen duten enpresen ordezkariak komunikabide aurrean azaldu dira euren lana plazaratu asmoz. Euskararen erabilpena bultzatzeko konpromisoak -krisi garaiak izanik ere- hartu izana txalotzea, hartutako konpromisoak bete eta berriak hartzea gonbidatzea eta beste enpresa batzuek ere konpromisoak hartu ditzaten, egitasmoa jendarteratzea izan da agerraldiaren helburua.

Anoeta eta Iruraren herri izaera euskalduna, lan-munduan ere islatu nahian, 2008an, Anoetako Udalarekin eta 2009an bi udalekin, Galtzaundi Euskara Taldeak, lan munduan euskararen normalizazioa lantzeko elkarlanari ekin zion.

Anoetako eta Irurako udalek eta Galtzaundi Euskara Taldeak, euskararen normalizazioa lantzeko egitasmoak bultzatzeko



konpromisoa azpimarratu eta urte hauetan, euskararen normalizazioa lantzeko konpromisoa hartu zuten enpresei, jarraipena egitea izan da, erakunde biek elkarlanean ezarritako helburua.

Egitasmoan 2012. urtean guztira 13 enpresek hartu dute parte -6 Anoetan eta 7 Iruran-. Galtzaundi Euskara Taldearen zein Irura eta Anoetako Udalaren ekimenez ondorengo enpresak dira lan munduan normalizazioak urratsak emanez jarraitu

duzenak: Anoetan, Recambios Ibarra, Mapi Grabatuak, Anoeta Karrozeria, Opel Giauto, Goya Okelak eta Zuriarrain iturgintza. Iruran bestalde, Vicente Errotuloak, Tolosa Marmolak, Mikelan, Ipar Auto Tailerrak, Baso-Lur, Alonso Burdin eta Metalak eta San Miguel Garraioak 1961.

Eraginkortasuna helburu, kasuan kasuko azterketa egitea izan da aurtengo proposamena. Iaz egindako lanaketaren ondorioak Galtzaundiko eta bi

udaletako ordezkarien artean aztertzea eta zein enpresetara jo erabakitzea izan da hartutako lehen lana.

Gauzak honela, 2012. urtean zehar ondorengo alorretan eragitea bilatuko du euskara taldeak: paisaia linguistikoan, hitz teknikoan erabileran eta barne eta kanpo harremanetan. Honez gain, bezeroekin harreman duen langileen hizkuntza gaitasuna ere aztertu du Galtzaundik.

Horregatik, euskara taldeak, kualitatiboki eragin asmoz, jada euskararen normalizazioaren bidean pausoak eman dituzten edo emateko prest agertu diren enpresetara jo du -aurretik

zerrendatutako 13 enpresak, alegia-.

Euskarazko kalitate ziurtagiriekiko interesa azaldu duten enpresei aipatu ziurtagiriak lortzeko bidea azaltzeaz gain, ziurtagiriak ematen dituzten entitateetako ordezkariekin bilkura antolatu du Galtzaundik.

Enpresek 2012. urtean zehar burutu beharreko hainbat eta hainbat konpromiso hartu dituzte euskararen normalizazioan beste pauso bat aurrera egiteko. Ondoren jasotako enpresek garrantzitsuenak ageri dira: ageriko idatzi eta oharrak euskaraz

jartzea; ordainagiriaren eta aurrekontuen txantiloia euskaraz jartzea; bisita txartelak, zigilua, gutunak eta ordutegia euskaraz jartzea; kanpo dokumentazioa eta aholkularitza daramaten enpresekiko idatzizko zein ahozko harremanak euskaraz izan daitezkeen bermatzea; errotilu nagusia euskaraz jartzea; telefono erantzungailua euskaraz jartzea; webgunea euskaraz jartzea eta lehen hitza euskaraz egitea. Konpromiso hauek burutu daitezkeen Galtzaundi Euskara Taldeak urtean zehar, zailtasunak aztertuz eta laguntza eskainiz enpresen jarraipena egingo du.

**Irakurle Taldea.**  
**Irakurle tertulia**  
 Eguna: irailak 13, osteguna  
 Ordua: 19.30  
 Lekua: Tolosako Kultur Etxea  
**Irakurri beharreko liburua:**  
**"Martutene"**  
 Ramon Saizarbitoria



Baserriko produktu naturalak  
 Mahala baserria • LEABURU  
 Tel.: 943 673 499



Osagaiak  
 Desarrolloak  
 Instalakuntzak  
 GUDARI KALEA 15-BEHEA TEL: 943 650 199  
 TOLOSA (GIPUZKOA) FAXA: 943 653 916



**Arteka**

ESKULANAK

Nafarroa etorbidea, 10  
 TOLOSA  
 Tel.: 943 655 577



Arostegieta kalea, 2 - Tolosa

enpresa katalogoak  
 aldizkariak  
 logotipoak  
 liburuak  
 publizitate komertziala  
 kartelak  
 egutegiak  
 bannerrak

**antza**  
 komunikazio grafikoa

Zirkuitu Ibilbidea, 2 / 2. pabiloia · 20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa)  
 Tel.: 943 370 738 / Faxa: 943 372 226 · info@antza.com · www.antza.com

# “Entrenatzaile euskaldunen beharra dugu”

8

16 urte edo gutxiagoko gazteekin Tolosan lanketaren bat egiten duten kirol eta aisialdi taldeekin harremanetan jarri zen Galtzaundi 2011-2012 ikasturtean. Aurrez aurreko elkarrizketen bitartez, entitatez entitate euskararen erabilpena zenbatekoa den aztertu zuten euskara taldeko teknikariek. Horretarako, hizkuntza paisaia, entitateetako langileen eta boluntarioen euskararen ezagutza eta entrenamenduetan, norgehiagoketan, instituzio eta entitate ezberdinekiko harremanetan nahiz etxe barruko bilkuretan erabiltzen den hizkuntza kontuan hartuz, datu bilketa egin zuten. Entitatez entitateko proposamenak egiten ari da orain Galtzaundi.

Igor Mujika

Kasu batzuetan, hizkuntza paisaian eragin beharko du, hau da, elkarrean instalazioetan oharrak, logotipoak, ... euskaraz jartzea sustatuko du. Beste batzuetan, entitateetan ardurak dituzten pertsonak euskalduntzeko edo

euskaldunak alor horietan lanean aritzeko bideak ireki beharko ditu. Azkenik, federazioetan eragiteko ahaleginak egin beharko ditu aipatu entitateekin, beste euskara taldeekin eta Udalarekin elkarlanean.



Izan ere, Galtzaundik jasotako datuek erakusten dutenez, Tolosan 16 urtetik behar-rako gazteekin kirol alorrean boluntario moduan lanean -entrenatzaile edo laguntzaile gisara- dabiltzan hamarretik zazpik federaziotik forma-

zioa gaztelera hutsean jasotako eta, ondorioz, nagusiki gaztelera hitz teknikoak erabiltzen dira batean eta bestean.


Kirol entitateetako zuzendaritza batzarrak ere hamarretik zazpik gaztelera hutsean

ala gaztelera euskara baino gehiago erabiliz egiten dute. Egoitza barruko idazkiak, berriz, hamarretik hiruk gaztelera hutsean dute. Azkenik, hamarretik bik jar-

dueren dinamizazioak, ... gaztelera hutsean egiten dute.

Besteak beste, Tolosaldeko Arraun Kluba TAK-ekin jarri da harremanetan Galtzaundi, eta bertako ordezkari Iñaki Kruzek aitortu digunez, “orain arte ez ditugu hizkuntza irizpideak kontuan izan. Kirolean aritu gara, zein hizkuntzetan ari ginen kontuan izan gabe”. Horixe da Galtzaundik egin duen diagnostikoaren ondorio nagusia: kirol entitateetan, orokorrean, kontzientziaz baino inertziaz hautatzen dela hizkuntza bat edo bestea erabiltzea.

E t a ,



10

esaterako, boluntarioak formazioa gazteleraz jaso izanak edo boluntarioetariko bat erdalduna izateak, komunikatzeko gaztelerara jotzera bultzatzen ditu boluntario asko. Hala azaldu digu Kruzek: "gazteen artean euskaraz egiten dute batik bat. Ez, ordea, entrenatzaile guztiek. Ondorioz, talde batzuekin erabat euskaraz egiten dugu. Nahikoa da, ordea, tartean erdaldun bat izatea denak gaztelaniara pasatzeko. Horregatik, entrenatzaile lanetan arituko liratekeen euskaldunen beharra dugu."

#### Euskaldunen bila

Hain justu, arraun-entrenatzaile

edo laguntzaile lanetan arituko diren euskaldunak bilatzeko kanpaina jarri du martxan Galtzaundik, Tolosako Udala-zen babesarekin. Informazioa eskuratzeko nahiz futbolearen edo arraunean entrenatzaile edo laguntzaile izateko interesa duen edonork Galtzaundi-entratekin harremanetan jarri baino ez du egin behar, Tolosako Nafarroa etorbidea 6an duen egoitzara joanez, 943 655 004 telefono zenbakira deituz edo koordinatzailea@galtzaundi.com helbide elektronikora idatziz.

TAK-eko eta Tolosa CF-ko arduradunek euskaldun horiei tokia egiteko prestutasuna erakutsi dute. Hala azaldu digu Kruzek: "entrenatzaile edo laguntzaile

izateko prestutasunez izena ematen duten euskaldunak erdaldunekin nahastea ona izango litzateke. Ez itzultzaile modura aritzeko, zenbait agindu, ohitura, ... euskaraz egiteko baizik". Tolosaldeko Arraun Klubeko ordezkariak gaineratu duenez, "entrenatzaile moduan aritzeko edo administrazio lanak egiteko prestutasunez euskaldunak klubean sartuko balira, ziur-ziur, dena euskaraz egingo genuke. Egun ez badugu hala egiten, ditugun gabeziengatik da".

Irazabalbeitiaren iritzian ere, euskaldunek kirol entrenatzaile eta laguntzaile izateko ardurak hartzeak "oso eragin handia" izan lezake kirol entitateak euskalduntzean, "berezi-ki egun entrenatzaile direkin harremanetan jarri baino ez du egin behar, Tolosako Nafarroa etorbidea 6an duen egoitzara joanez, 943 655 004 telefono zenbakira deituz edo koordinatzailea@galtzaundi.com helbide elektronikora idatziz. Hala azaldu digu Kruzek: "entrenatzaile edo laguntzaile

eta esapideak eskuratzeko edo berreskuratzeko parada emango die".

#### Udalak neurriak

Halaber, entitate ezberdinak inertziaz baino kontzientziaz euskaraz aritzera bultzatu nahi ditu Galtzaundik egitasmo honen bitartez. Bide horretan, "orain arte ez dugu kontuan izan zein hizkuntzetan entrenatzen genituen gazteak. Galtzaundi-entratekin bildu ostean, gure errealitateaz jabetu gara eta euskararen erabilpena klubeko alor guztietan nola bermatu pentsatzen ari gara", azaldu digu Kruzek.

Entitate orok bide bera egin dezan, Tolosako Udalak

ere neurriak hartu asmo ditu, Hizkuntza Politika eta Hezkuntza Saileko zinegotzi Iñaki Irazabalbeitiak aurreratu digunez: "2012an etapa berri bati ekin diogu. 2012ko diru-laguntzak banatzeko irizpideetan txertatu da baloratzea euskararen erabilera klubetan jardueraren esparru desberdinetan. Beraz, aurrerantzean klubek jasoko duten diru-laguntzaren zenbatekoan euskararen erabilpenaren neurriak eragina izango du. 2012a lehen urtea izanik, trantsizio-urteztat jo da. Klubei egoera berrira moldatzeko epe bat zabaldu nahi izan zaie eta, hizkuntza-irizpideak aplikatzeko unean, eskuzabaltasunez jokatzea erabaki da. 2013tik

aurrera zorrotzasunez aplikatzeko zaizkie hizkuntza-irizpideak".

#### Federazioak

Kruz eta Irazabalbeitiari kirol federazioek duten arduraz ere galdetu diegu eta, Tolosako Udaleko Hizkuntza Politika eta Hezkuntza saileko zinegotziaren iritzian, "federazioek kirol-jardueraren aspektu ia guztiak kontrolatzen dituzte (lehiaketa, araugintza, epaileak, trebakuntza, etab.) eta, ondorioz, ezinbestekoa da federazioak euskaraz lanean jartzea euskara kirolaren alorrean normalizatzeko".

Tolosaldeko Arraun Klube-ko ordezkariaren esanetan, ordea, "formazioetan ere errazena egiten da: euskaldunak eta erdaldunak daudenez, gaztelaniara pasatzen gara. Ondorioz, euskarazko hitz teknikoak erabiltzeko zailtasunak ditugu (seguruenik, ohitura

faltagatik) eta, lege araudiak, hitz teknikoak eta komodidadeak erdarara bultzatzen gaituzte".

Kruzek gaineratu duenez, "administrazio lanak egiten dituztenak ere erdaldunak dira federazioetan. Ondorioz, dena erdaraz egiten da". Federazioetan nola eragin beharko litzatekeen ere galdetu diogu Iñaki Irazabalbeitiari eta, hala erantzun digu: "bi frontetatik eragin behar da federazioetan. Batetik, klubek euskaraz jardutea eskatu beharko liekete. Era-kunde publikoak eta, bereziki, Eusko Jaurilaritza direnez Federazioak zati oso adierazgarrian finantzatzen dituztenak, paper proaktiboa hartu eta Federazioak euskaraz ere lan egitera bultzatu beharko lituzkete, bestetik, adibidez, banatzen zaizkien diru-laguntzetan hizkuntza-irizpideak txertatuz".



**Beti Nahi**  
galtzaundi

Garaian garaiko janariak eta arraikietan bereziak

Tel.: 943 671 920  
Errementari kalea, 16 • 20400 Tolosa

**IG**  
**GORRI**

Paper manipulaziorako makina eraikuntza

Konponketa eta mantenimenduak

Apatta industrialdea.  
Baratzondo D 26. Ibarra  
Tel.: 943 671 590.  
Faxa: 943 673 916

**SANZ**  
arraindegia

Tel.: 686 98 21 74  
943 65 17 85

11

## Twitter euskaraz

Gertaeren ibilbidea iragari bezala betez gero, honako testua irakurgai dagoenerako Twitter sare soziala euskaraz erabiltzeko aukera izango dute erabiltzaileek. Izan ere, sare sozial ospetsuak jakinarazi bezala, uztailearen 5etik aurrera euskara erabilgai izango da. Hots, interfazea euskaraz

jartzeko aukera eskainiko du Twitterrek.

Horretarako ordea, aldeztu aurretik egin beharreko lanak amaitu beharko ditu informazio sareak: itzulpena



zehaztu datarako amaituta izatea, alegia. Itzulpen lana erabiltzaileen lan boluntario eta komunitarioari esker errealitate bihurtuko da. Izan ere, euskaldunek luzatutako eskaeratik abiatuta, sare sozialak zerbitzua euskaratzeko gunea erabiltzaileen esku jarri zuen.

Euskararekin batera, erabilgarri egongo diren hizkuntzak berriak katalanera, ukrainierara, grezierara, txekierara eta afrikaansera dira. Aplikazio berrietan euskararen erabilera bat baino ez da; aplikazioa itzulpen lanetan murgildurik baitago.

## Banaiz Bagara taldeak udan ere euskara lantzen jarraituko du

Petra Elserrek gidatutako Banaiz Bagara taldeak, euskara etorkinentzat eskuragarri jartzeaz arduratzen jarraituko da uda partean ere. Elserrek jakinarazi bezala, Tolosako taldeak asteazkeneko bilerekin helduko die uztaile eta abuztuko hilabeteetan zehar. Bi eguneko atsedena baino ez du hartuko Banaiz Bagara

taldeak: abuztuaren 15a eta 22a, hain zuzen ere.

Asteazkeneko bilkura hauek Tolosako Kultur Etxeko areto nagusian ospatzen dituzte, arratsaldeko 19.30ean hasi eta 20.30ak bitartean. Xedea, Tolosa eta Tolosaldean bizi diren etorkinei euskararekiko zein euskal kulturarekiko lehen kontaktua eskaini eta

ezagupenean aurrera egiten laguntzea da. Zeretik abiatuz euskarazko komunikazio klaseak eskaintzen ditu Banaiz Bagara taldeak. Horretaz gainera, bestelako ekintzen bitartez parte hartzaileen euskararekiko atxikimendua lortzen du Petra Elserrek: kantu-saioak, pilota eta pala partiduak, pelikulak...

Honako klaseak pertsona heldu etorkinei zuzendurik daude eta dohainekoak dira. Informazio gehiago eskuratu ahal izateko Banaiz Bagara taldearekin harremanetan jar daiteke: [www.ninaizgugara.org](http://www.ninaizgugara.org) webgunea edo 645 733 818 eta 943 331 455 telefono zenbakiak.

## Jadanik salgai dago kxo! aplikazioa



Elhuyarrek euskara ikasteko smartphoneetarako aplikazioa salgai jarri berri du. kxo! euskarazko oinarriko hiztegia ikasteko aplikazio bat da, eta haren bidez gaztelania, ingelesa edo frantsesa abiapuntutzat hartuta

euskara ikasteko aukera izango du erabiltzaileak.

Aplikazioaren nahia euskararako lehen hurbiltzea ahalbidetzea da, eta haren helburua euskaraz ezer ez dakienari edo euskara apur bat baino ez dakie-

nari ohiko egoeretan euskaraz komunikatzeko tresna eskaintzea da. Horretarako, entzuteko ariketak, mintzatzeko ariketak eta irakurri eta idazteko ariketak luzatuko dizkio erabiltzaileari.

## Laster arte, Mintzalaguna!

lurre elkartean egindako meriendarekin eman zioten 2011-2012 ikasturteari amaiera Mintzalaguna egitasmoko partaideek. Irailean berriz matrikulatu ahalgo dute euskaraz hitz egiteko beharra dutenek.



# Karlos Zurutuza kazetaria hemen da berriz ere ikasturtea hasteko

Galdutako gatazkak aztertea da bere helburu nagusia. Jakin-min handia sentitzen du gune betatuengatik: Abkhazia, Kurdistan, Afganistan, Siria, Irak eta Balutxistanen egon da, besteak beste. Argia Saria jaso du, Libian Berria egunkarirako iaz egindako lanagatik.

buruhausteak sorrarazten ditugurean. Heine batean, ondaren esklabo bilakatu gara Mendebaldean.

**Erreportaje bat egiterakoan zein gai islatzen saiatzen zara bertan?**

Madi lesbiana da Bagdad eta horregatik akabatu nahi dute; NATOk Ali Ahmeden etxea erraustu du; Libiako umeak eskolara bueltatu dira, gerra luze eta bortitz baten ostean; 11 urte dituen Ihamtullah afganiarrak eskubiko besoa eta begi bat galdu ditu, mina bat jostailu batekin konfunditzean... Zibilek osatzen dute egungo gerretako biktimen %90a. Haien istorioak jasotzen saiatzen naiz ni.

**Jakin dugu hainbat herrialdeetan ibili zarela, zein ondorio atera duzu?**

Asko. Lehendabizikoa, loteria hutsa dela han mundu aberatsean ala pobreak jaiotzea. Injustizia, beraz, 0 urtetik pairatzen du gehienak. Jakin banekien herrialde haietara joan aurretik baina nire begieiz ikusi ahal izan dut azken urteotan.

**Zergatik piztu zitzaizun Irakera joateko nahi hori?**

Faktore ugari pizten dute norabait joateko grina: interes pertsonalek; egunkari eta bestelako medioek nire lana erosi ote duten... Iraken dezente egon naiz, eta, zirurrik, hobekien ezagutzen dudana herrialdea izango da. Batetik, herrialdeko kultur aniztasunak liluratu nau beti; bestetik, biziki amorratzen nau irakiarrek jasandako injustiziak, 2003ko inbasioa dela eta.

**Zein ezberdintasun ikusi duzu bisitatutako herrialdeetako gizartean eta gurean?**

Gutxi daukanak dena emateko prest dago. Guk, aberatsok, gure etxeak itxi eta mesfidantzaz begiratzen diogu atzerriarari askotan. Aberatsunak berau kontserbatzeko

**Gogorra al da hango egoera tamalgarrirako murgilduta lan egitea?**

Gogorra baino, etsigarria esango nuke nik. Jendearen istorio horiek jasotzen ditugu erreportariok baina nekez jakin dezakegu ahalegina zerbaiteko balio izan duen. Dena den, bakar batek Ihamtullaren istorioa irakurtzeak esfortzua justifikatu duelakoan nago ni.

**Zure erreportaje batean Afganistango gerrak konponbiderik ez zuela zenion, zergatik diozu hori? Zer ikusi duzu bertan hori pentsatzeko?**

Afganiar gehienek zera esan zidaten han nengoela: ez dugu atzerriko troparik ikusi nahi gure herrialdean, ez eta talibanek boterea hartzea berriro ere. Funtsean, jendeak gris kolorea nahiko luke baina zu-



Juan Mari Senperena eta Gaizka Maiza Uzturpe Ikastola

**Uzturpe Ikastolako irakaslea eta erreportaria da Carlos Zurutuza donostiarra. Eszedentzia eskatu ondoren, munduko herrialde asko bisitatu ditu azken bost urteotan.**

ria ala beltzeko "konponbidea" deritzot Afganistangoa. Hori ala hirugarren aukera, gerra zibila alegia.

**Nola bizi du herriak Irakeko egoera?**

Bagdad, Falujan, Basoran... oraindik ere hondamendia da nagusi herrialde osoan. Amerikarrak iragan abenduan erretiratu ziren eta batek pentsa lezake demokrazia abian dela Iraken. Gezurra da. Usteleria eta segurtasun eza dira egun irakiarren arazo larriak. Penagarria eta etsigarria da amerikarrek atzean utzitako egoera.

**Zeintzuk dira zure hurrengo proiektuak? Pentsatuta al duzu beste herrialde batera joatea?**

Ekialde Hurbila eta Asia

erdialderantz hainbat bidaia egin ondoren, Ipar Afrika zapaldu nuen iaz lehendabiziko aldiz, Libiako krisia zela eta. Berbereak eta tuaregak daukat buruan; Aljeria, Mali... Afrikako deskolonizazio prozesua betetzeke dago eta berta bertatik ikusi nahi dut.

**Zein onura ekarri dizu lanbide honek maila pertsonalean?**

Ikargarri ikasi dut, egunero eta etengabe. Euskal Herrian, etxean, gehiago baloratzen dut daukaguna. Bidaiaz zuzen garrantzitsua eta aberasgarria den transmititzen saiatu naiz beti nire ikasleei. Ikasleak aipatu ditudanez, eskerrak eman nahi dizkiot Uzturpe Ikastolari, bihotz-bihotzetik, bost urteko baimen hau luzatu izanagatik.

# Jon Ormazabal XIV orduko mendi festaren hausnarketan

Aralarko Adiskideak Elkarteko lehendakaria da Jon Ormazabal tolosarra. Elkarteko bazkidea da 1988tik eta aurtengoarekin bigarren aldiz izan du ibilaldiaren ardura. Lehenik eta behin zorionak eman behar zaizkie XIV orduko antolatzaileei, 2.300 lagun baino gehiagori, 68,5eko ibilbidean, eguraldi zoragarria lagun, Aralarko ikuspegiez gozatuaz mendi festa zirrargarrian parte hartzeko aukera eman zitelako. Bere borondatez lanean aritu dira 250 lagun, bideak markatu, mendizaleen jan-edanak asetu eta osasun arazoak artatzeko. Tartean izan diren kritiken aurrean, aipatu izan diren gabeziak publikoki bere gain hartzeko balio erantsia agertu dute antolatzaileek.

Felix Aiestaran

Udan Pirinioetan ibilaldiak egiteko prestaketa modura, 1924an 14 lagun parte hartu zutenetik aurtengoan 2.300 lagun bildu dira. Tartean 3.000tik gorako par-

te hartzaileko edizioak ere ospatu izan dira. Ibilaldiak gainera azken urteotan bilakaera handia izan du. Gaur egungo mendizalea prestatuagoa dago eta hamalau orduetik, hamaika ordu izatera ere pasa da. Ibilaldi neurtuaren ildoak astintzen du joera honek, baina hamabost ordutan egiten duten betiko partaideei ere, euren tokia egiten die; azken finean, bizirik dagoen mendi ibilaldi zoragarri baten berezko bilakaera izan da.

Mendi proba desberdinak azaldu dira azken urteotan, baina XIV Orduko Ibilaldiak bi mila gorako partaide herrikoiei etsi ahal izan die eta gazte ugari parte hartu du, bertan. Garai batean hamabost urteko gaztetxoek erronka honi gehiago eusten zioten.

Eguneko arazo eta eskaerei erantzun ondoren, atzeratutako azken partaideari itxaroteko gai izan ziren antolatzaileak iluntzeare zegoela. Mendi itzuliekin jarraitu eta Malloen inguruak oroitzapenen begietan txertatuta, oparitutako liburu ederra begizta dezaugu.

Egin dezagun Aralarko Adiskideak elkartearen historia...

Tolosar batzuek sortu zuten 1928an. Mikeleteen postu baten hondakinetan, Norvegiar ikusi moduko eraikina egitea bururatu zitzaion Paco Tuduriri; Malkorra eta Pantxo Labaien berarekin batera aritu ziren. Sorrera nahikoa

elitista izan zuen. Gero, mendi elkartearen zereginari heldu zion, Alpino eta Oargiren modura, baina gaur egun ez ditugu mendi iteerrak antolatzen. Bi urtean behin Hernio inguruko ibilaldia eta XIV Orduko Ibilaldia antolatzeaz arduratzen gara.

Zenbat bazkide zarete?

129 bazkide gara, bazkide eta herentziaz pasa denez, ehuneko berrogei inguru Tolosatik kanpoko da eta horrek elkarteari ez dio mesederik egiten. Adinaren batzuek bestekoa altua da eta horrek ere asko mugatzen gaitu.

Eraikina mantentzea garestia da?

Konponketak boluntarioek egiten dituzte. Iraileko azken astea horretarako hartzen dugu. Beti izaten da zer egina. Zuzendaritza taldean nagoenetik sei urte pasa dira. Lehengo jendeak badu ofizioa, eta mantentze lanak egiteko prest dago. Bazkideok asteburu pasak egiten ditugu eta udan astebeteko egonaldiak egiten ditugu, txandaka.

Zorionak, XIV orduko moduko ibilaldi handia antolatzeagatik! Nola biltzen duzue lanerako horrenbeste boluntario?

Berrehundik gora lagun biltzen gara. Igaratzen beti, Aiz-Orratz Veleta elkarteko jendea egon izan ohi da, Lekunberrin Ero-Etxeko jendea, Gorritin Gorri eta bere



arte itxaron genion. Hamarrak aldera diploma eman genion, bera pozik eta gu ere bai.

Atzetik lan handia dago, ezta?

Lanik gaitzena administraziokoa izaten da. Izen emateak internetez egiteko Iñigo Goñi arduratu da eta horrek asko arindu du, helduenek horrela aritzeko ohitura handirik ez duten arren. Ondoren txartelak eta liburuak banatzeko, lehen egunean jende ilara luzea sortu zen baina ondo bideratu zen dena.

Nola egin zenuten opariaren aukeraketa?

Hasiera batean, Juan Mari Ansari erreportajeren bat edo egiteko eskatu zitzaion, baina berak Malloak inguruan kontatzeko mami agortezina aurkitu zuenez liburuak 2010ean argitaratu genuen, elkartearen 75. urteurrena ospatzeko. Arantz bailarako mami arakutzen lan handia egin zuen. Las Malloas de Aralar liburuak argitaratu aurretik, bertako berri eman zioten lauzpabost lagun hil ziren. Agortuta zegoenez, egokia iruditu zitzaion liburuak oparitzea. Liburuaren argitalpen txukuna egin nahi izan genuen eta mendia gogoko duenarentzat liburuak interesgarria da. Bertako Udalek erabakita Arantz eta Beteluko etxe bakoitzean ale bana dago. Zalantzak izan ditugu, etxe batean hiru partaide badira zer egingo duten hiru liburu horietan... baina aurrera egin genuen

**BETELU PNEUMATIKOAK  
TAILER MUGIKORRA**

Pneumatiko aldaketa  
Zulatutako gorpulen konponketa

646 474 166

info@neumaticosbetelu.es - www.neumaticosbetelu.es

jarri zure  
publizitatea  
**Galtzaundi**  
aldizkarian

Nafarroa etorbidea, 6  
20400 Tolosa  
publizitatea@galtzaundi.com  
943 655 004  
www.galtzaundi.com





3.400 ale eginaz, aurreko liburu eskaerari erantzutearren. Nik ulertzen dut anoarik gabe geratu zirenek haserrea, etxean zuten libururuak ez zietela jatekorik ematen esaten zutenean. Oparien kontu honekin asmatzea ez da erraza, makilak atera zirenean ere zerbaite entzun nuen.

**Aurten anoa kontuarekin planteamendu berria izan duzue...**

Gaur egun, jendea oso ondo prestatu eta lehen baino arinago ibiltzen da. Azken urteotako horrenbeste mendi proba desberdinak izanik: Aizkorriko igoera, Kilometro bertikala...

guk mendiko egun pasa den tradizioari eutsi nahi diogu. Guk bolumena eta pisua duten jakiak emango ditugu: ura, fruta, salda, kafea, ogitartekoa... eta norberak barrira energetikoak, txokolata eta dena delakoak. Guk horren berri ematen saiatu ginen aurretik. Kontrolatan txipa jartzearen gaia ere aztertu genuen, baina baztertu egin genuen lasterketa baten planteamendua hartuko zuelako ibilaldiak. Kontrolak kentzearena ere aipatu zen, hiru jarrita nahikoak izan daitezke. Inor ez da arituko ziria sartzan, bestela, bejondeiola! Baina, aurtengoan

kontrolak mantentzea erabaki genuen.

**Izena eman gabeko jendearen partaidetzak ere, anoa gunean bere eragina sortuko zuen, ezta?**

Nik ere entzun dut izenik eman gabe parte hartu duela batek edo bestek... Ni hirugarren urtez San Migeleko anoa gunean egon naiz eta badakit aurretik pasatzen diren batzuek ahal duten guztia motxilan sartzan dutela ere. Dena den, gutxi batzuen kontua da. Hainbat janari osagarri kentzean, badirudi zegoenetik gehiago jan zela. Dena den hutsik handiena urarekin egin genuen. Kontrolatuz denentzat iritsi zen, baina egin ezinako hutsa egin zela aitortu behar dugu. Igaratzen iturrria zegoela esandakoan jendeak nola hartzen zuen ere alde handia dago!

**Hornitzaile, laguntzaile ugari izan zuten, ezta?**

Irurako harakinenean prestatzen dugu salda eta kafea. Zelaik Igaratzako azpiegitura, Goyak hozkailua duten furgonetak utzi zizkigun, ura Insalusek dohainik ematen digu, baina horrenbeste ur garraiatzeko behar den logistikari dagokiona kobratu egiten digu.

**Mendi proba desberdinen bilakaera handia izan da azken urteotan... XIV Orduko Ibilaldiak bere filosofiarantz eutsiko al dio?**

Anoa eta opariaren kontuaz hausnarketa egiteko beta dugu, baina ibilaldiaren planteamendua ari garenean, betiko filosofiarantz eutsi behar diogu. Duela nahikoak izan daitezke. Inor ez da arituko ziria sartzan, bestela, bejondeiola! Baina, aurtengoan

jendea horrenbeste prestatzen denez, proba parte hartzaileen sasoiara egokitu behar da, minimoak jaitsi egin ditugu, baina, denbora maximoak mantendu egin ditugu.

**Ibilbidean ere aldaketak izan dira...**

Jendea asfalto asko zegoela eta kexu zenez, Lekunberrin Plazaola bidetik bideratu genuen, errepidetik aldentzearen; San Migelen, txirindularitza proba zegoenez, aurkitzea ederki kosta zitzaigun artzain bide batetik bideratu zen... Denera hirurehun bat metro gehitu dira... Baina niri, Amezketatik Alegia arteko tartea da amorrua ematen didana. Errepideak duen arriskuak lan handia ematen du. Bedaiotik pasatzen den bidea proposatu digute... Aurten ez da horrelakorik aukeratu, baina hurrengoetan alda daiteke.

**Gazte jende askok parte hartu du...**

Bai, baina oso gazteak oso gutxi... Guk hamabost urterekin parte hartu genuenean, ibilaldia olinpiadetar joatea modukoa zen. Gurasoen baimena eskatzen dugu. Bat edo beste izan da...

Partaidetza egonkortu egin da, proba desberdinak daudelako, krisia eta beste hainbat arazo direla medio. Dena den, bi milatik gorako partaidetza eskuratzea handia izaten jarraitzen du. XIV Orduko Ibilaldia, Ramon Olasagastik esaten duen moduan, lau urtean behin norberaren ITVa pasatzeko erronka da. Aurreko prestaketaz zein egunekoarekin mendiaz gozatu, edozeinekin egin dezakeen proba da. Hori bai, aurretik prestatuta, noski!



losu Iztueta Azkue  
Bidaiaia


**Bidean  
Altzotik ezkutukoa ikustera**

Amezketatik Alegiara errepidez gatzela, badira eskuinaldetik nabarmen iristen diren bi bailara: Bata Bedaiotik Ugartera eta bestea Harrobitik datorrena. Lehenak badu irteera eta Nafarroako Zarate mugaraino iristen da, bigarrenak ez du errepidez irteerarik eta gure gertuko orografiaren ezkutuko leku bat gordetzen du. Altzo Muinoko plazatik abiatuko gara, Elizaren atzealdeko horma frontoi bezala erabiltzen dute gatzetxoek, eguraldia lagun aterpe beharrik ez da izaten baina eguraldi txarrekin aspaldiko pilotaleku estalia bada Altzon. Lizarribar eta Elordi etxean arteko asfalto errepidea hartuko dugu, berez PR-GI 113 ibilbideko marra hori zuriak jarraituz ibiliko gara. Ehun metrora egurrezko AizpeHaundi AizpeTxiki seinaleak eskuin aldean utzita aurrera goaz, bi pita landare eta erramu (ereñozu) zuhaitz baten artean. Gutxira iturri bat, (ur ez edagarria) dio bertan, azkenaldian hemendik kanpo (ur ez tratatua) ikusi dut hainbat iturritan idatzita, gauza bera dirudien arren

nire iritziz egokiagoa da azken hau. Zalantzarik ez izateko onena, leku segurutzat hartu eta norberak motxilan daramana edatea! Bidean goazela, ate berdez pintatutako pabiloi zuria, aurrez aurre, bidegurutzea eta zortzi baserriren izenak, azpialdean Gereizeaga atsedenekua. Guk Goikoetxea aldera hartuko dugu, urrutira Txindoki mendia agertzen zaigu lehen aldiz baina gaurkoan nabarmena izango da bere presentzia. Tarteka belardi bazterretik eta tarteka basotik bi kurba handi egiten ditu bideak beti ere gorantz, erreteila egin berri daukala dirudi Goikoetxe baserriak, ukulu sarrera eta mandiokoa altuera ezberdinean dauka, baserri askotan ohikoa den bezala. Hantxe bideak 90º-ko buelta hartzen du ezkerretara, zalantza izanez gero, segi asfaltoari eta denbora asko baino lehen Gasbidearen estazioa dagoen mendi-lepora iritsiko gara. Eguraldia garbia baldin badago iparraldera Uzturre mendia ikusiko duzue, Altzoko plazatik hona ordu erdi gutxi gorabehera. Bidegurutze honetan

bukatzen da asfaltoa. Pista zabaletik jarraitu edo pinadiko bidezidorretik, ehun metro beranduago leku berera irtengo gara, Otsabio dioen karteltxo txiki bati kasurik egin gabe aurrera, Balerdi mendiaren perfila ere nabarmen da urrutira, bideak zeharka segitzen du, behearantz doan pista utzi eta gurdibidearen zabalera duen aldapa pikoa igo, hango pago bakarrean ere ikus daiteke seinale zuri gorria, GR 121 ibilbidekoa da, hori da askotan seinale zuri, hori, gorriak batera ikustearren arrazoia. Goikoetxe baserrietik honaino egindako bide osoa ikusten da hemendik, ia zirkulu erdia osatu dugu eta harrobia gero eta hurbilago daukagu. Hainbat garaitan ikusi baino lehenago entzun egiten da bertako makinaren eta kamioien joan etorria. Mendiari kendutako kareharrizko mendi-zuloa ikaragarria da, esplotazioa iritsitako marra zuria goialdeko basoraino iristen da, pagadi berdea eta artadi berde ilunagoraino. Gu goazen bidea bide eroso da. Mendi magala

Duela urte pare bat Tolosatik Altzora bitarteko ibilbidea proposatu genuen eta ziurrenik zuetariko askok duela hilabete, XIV Orduko mendi martxan parte hartutakoak zarete.



# Ereite Elkarteak, birsortzeko prest

Ereite buru-belarri dabil lanean kultura ezberdinen elkartruktzeko gune izateko. Bazkide kanpaina ere abian jarri du, ate irekien eguna ezagutarazteko zita bihurtu duela. Ereite elkartearen helburuez, historiaz eta etorkizunaz mintzatu da Galtzaundi Rosalia Fierro, Ana Marijuan eta Paula Flemingekin.

Naiara Roldán de Aránguiz

Rosalía Fierro elkartearen sortzailetakoa da; Paula Fleming britainiarra, azken sei urtetan Tolosaldean bizi da eta Ana Marijuan, tolosarra, kultur ezberdinek eskaintzen duten aberastasunaz jakitun, iritsi berriei laguntza eskaintzeko prest dago.

Rosalía Fierro Ereite bere sorreratik ezagutzen du. Izan ere, Ereite errealitate bihurtzearen bultzatzailetako bat dugu. Rosalía bere etxean beste pertsona batekin elkartzen hasi zen duela urte batzuk, bilkura horietara emakume gehiago gerturatzeko burutazioa izan zuen; horrela, jaiotzen elkarrekin.

Egun, urteak igarota, Fierroren helburua, "Ereite berriro susperetzea" dela aitortzen du. Izan ere, Ereite bi urtez jarduerarik gabe egon bada ere, Rosalía argi izan du elkarrekin berriro ere indarberritu beharra zegoela: "niretzat oso garrantzitsua zen Ereite aurrera egitea, elkarren antzekotasunak genituen pertsonen elkargunea baitzen. Adiskidetasun handiak sortu dira bertan". Elkartearen

egungo helburuek bat egiten dute sorreran zehaztutakoekin, horrela adierazten du, behinik behin, Paula Flemingek: "elkartasuna eta kanpotarren arteko laguntza", hain zuzen ere.

Ereite jorratu izan dituen jardueren artean euskara ikastaroak, dantza, musika, hitzaldiak, irteerak, egun gastronomikoak, sukaldaritza tailerrak, ipuin kontaketak... izan badira ere, indarrik gehien izan duena, "Emakumeen afariak" deiturikoa izan da. Hileko azken ostiralean 35 emakume elkartera heldu dira; bertan herrialde ezberdineko janak dastatu eta herrialde horietako kulturak ezagutzeko parada izan dute bertaratutakoek. Sorreratik gaur egunera arte ospatzen jarraitu den jarduerak da honakoa.

#### Heldu-berrientzat

Tolosaldera iritsi berrien egoera biziki ezberdina izaten dela kontutan hartu beharra dagoela aitortzen du Flemingek: "pertsona bakoitzak behar mota zeharo ezberdinak ditu". Bere kasuan, Ingalaterratik baliabideekin hel-

du zen, bere semearen aita bertan zegoela, eta Ereite familiaz aparte harremanak egiteko eta bizitza soziala izateko gunea bilakatu zen.

Kasu bakoitza, hala ere, zeharo ezberdina da. Beste pertsona asko Tolosaldera inolako baliabiderik eta bakarrik heltzen dira. Horregatik, Ereiteren nahia laguntza eta elkartasuna eskaintzea da. Honetaz gain, Paula Flemingek zehaztu bezala, elkartearen nahia pertsona hauen herrialdeen egoera ezagutu eta ezagutzera ematea da, baita Euskal Herrikoa ere: "bertako kultura eta hizkuntza mantentzeko borrokatu izan dute euskaldunak eta horregatik heldu berrientzat ere eredu izan daiteke; euskaldunak bertako kulturaz harro daude". Horregatik, Ereite bertan bizi diren kultur guztien kokagune izan nahi du, elkartruktzeko eta ospakizunerako gunea, alegia.

#### Babes gunea

Honetaz guztiaz gain, Ana Marijuanek jakitera eman bezala,

"Ereite elkartzeko gunea izan nahi du; jendea babestua, onartua, lagundua sentitzeko gunea, edozein arazoren aurrean bertara jotzeko aukera eskaintzen duena". Horregatik, gastronomia, kultura eta ospakizun jarduerak gain, laguntza eta aholkularitza zerbitzua ere eskaintzen du Tolosaldeko elkarte honek.

Ana Marijuan horren adibidea da, heldu berriei akonpainamendua eskaintzen die: "kanpoko herrialde batekoa izan eta bertan funtzionatzen ez dakitenei laguntzen diet; hizkuntza arazoa dela, ezjakintasuna dela, medikura edota kontu administratiboekin laguntza eskaintzen diet". Berak bezala hainbat taldekidek akonpainamendu zerbitzu bera eskaintzen dute Ereiteren bitartez.

#### Bazkide kanpaina abian

Ekintza hauek guztiak garatzeko, ezagutzera ematea ezinbestekoa da Ereiterentzat. Erabilitako bidea, ate irekien eguna ospatzea izan da. Iragan ekainaren 30ean, larunbatean, Ereite San Esteban kaleko 20. zenbakian kokaturiko lokalaren ateak zabaldu zituen, jende berria erakartzeko asmoz. Herrialde ezberdineko janak eta musikaz gozatzeko parada izan zuten bertaratutakoek -Maroko, Mexiko, Ingalaterra, Ekuador, Brasil, Angola, Nigeria...-



Orduan aukerarik izan ez zutenek eta elkartzeko kide izateko interesa dutenek Ereiterekin harremanetan jarri besterik ez dute: 685750561 telefono zenbakia bitartez edota multiculturalereite@yahoo.es helbide elektronikoa bitartez.

Izan ere, elkarte honen helburua jende berria erakartzea, eta ideia berriak elkartruktuz lan-egitaraua zehaztea da. Rosalía horrela azaltzen du: "jende berria Ereiteren parte sentitzea nahi dugu, eurentzat eta eurekin eginbeharrak zehaztuz".

Azkenik, Rosalía Fierro, Ana Marijuanek eta Paula Flemingek Ereiteko partaide izateko hainbat arrazoi luzatu dituzte. Anaren esanetan, Ereite pertsonalki garatzeko, pertsonak

ezagutzeko, gustura sentitzeko eta etxean zein familian sentitzeko gunea da.

Paula Flemingek bere aldetik, dei egin die, bere antzera, kanpotarrak izan eta Tolosaldean denbora bat daramatenei, bertako kulturaz jabeturik, heldu berriei laguntza eskaintzeko. Rosalía ordea, bere aldetik, lanerako duten gogoa goraiatu nahi izan du.

#### Diru-laguntzak ezinbestekoak

Aipatu ekimen guzti hauek indarrean jartzeko, hirurek aldarrikatu bezala, erakunde ezberdinen inplikazioa beharrezkoa da: "diru-laguntzak eskatzeko prozesuan gaude eta erakundeek laguntza ezinbestekoa da", eskaera eginez amaitu dute Ereiteko partaideek. ☺

URDAIKARIAK  
*Altuna*  
HARAKINAK

Korreo. 39 20400 TOLOSA  
Tel.: 943 671 414 Gipuzkoa

gizarte  
kutxa

ZABALA  
DESGUAZEAK  
KUDEATZAILE BAIMENDUAK  
EU2/111/04

BEOTIBAR INDUSTRIALDEA, 18 - BELAUNTZA  
TEL./FAXA: 943 671 790 -  
MUGIKORRA: 696 593 347

ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA

Foruak, 5-bis • TOLOSA  
Tel.: 943 652 712

matilda  
zure moda osagaian denda

Korreo Kalea, 3  
Tolosa

Gozotegia Okindegia

**ECEIZA**

P. Gorosabel, 34 - Telf. 943 655 161 - San Francisco, 8 - Telf. 943 651 916

## irakurri entzun Ikusi

Udazkeneko lorea  
Xabier Etxeberria Garro

Carlosen ezkontzan ezagutuko dute elkar Mikelek eta Luciak. Baina euren artean gertatutakoa isilpean gorde beharko du Mikelek, Naroak ezer jakin ez dezan. Luciak, berriz, Marta bere ahizpari sekretu mingarri bat dauka argitzeko; gutun batean idatziz kontatuko dio bere egia osoa. Naroa ere Mikeli esatera ausartzen ez den gezur batean harrapatuta dago.

Oinak kantuz  
Aiko

Bost urteren ondoren, Aiko taldeak dantza tradizionalen osaturiko CDa argitaratu du. Grabazioek, erritmoek eta piezen ordenek taldearen dantza-saio bat gogorarazten digute. Pieza guztiak berriak dira, hori bai, modu tradizionalen idatziak eta interpretatuak: pasodobleak, jotak, jauziak, txotisak... Bole-ro, habanera eta tangoren bat ere bai tartean.

Ahate pasa  
Koldo Almandoz

Kimuak 2009. Film laburra. Uztailearen 15 eta 16an, igandea eta astelehena, Tolosako Leidor Aretoan ikusgai. Eta bat batean, ahateek pantaila gurutzatzen dute da "Ahate pasa" film laburraren sinopsia.

# hitzordduak

Uztailaren 6tik irailaren 7ra bitarteko

## Kirola

**Aralarko Minak ezagutzeko bisitaldi gidatua.** Uztaileak 8, igandea. Amezketako elizatik abiatuta, goizeko 10.00etan. Izena emateko: Txindokiko Itzala

**Pico Urbionera irteera.** Uztaileak 14 eta 15. Oargi Mendi Elkartek antolatuta

**Ehumilak.** Uztailearen 13tik 15era

**Pico de los Cabrones,** Torre de Cerredo eta Neveron de Urriellora irteera. Uztaileak 28-31. Oargi Mendi Elkartek antolatuta

**Eskalada ikastaroa.** Abuztuak 18 eta 19. Bi goizeko ikastaroa. Orduategia taldearen arabera. Gutxienez 3 laguneko taldea. Abaltzisketako Txindokiko Itzala

**Piragua ikastaroa.** Abuztuak 25 eta 26. Bost orduko ikastaroa. 3-7 kide bitarteko taldeak. Abaltzisketako Txindokiko Itzala

## Uda gaztea

**Tolosako Gazte Topagunearen Uda Gaztea**  
Uztaileak 9, astelehena.

**Eskulanak:** erlojuak  
Uztaileak 10, asteartea.

"Tolosako Txokotan" bideoaren grabaketa  
Uztaileak 11, asteazkena.

Diabolo eta malabarak  
Uztaileak 12, osteguna.

Surf ikastaroa  
Uztaileak 16, astelehena.

Eskulanak: fimo eta fieltroa  
Uztaileak 17, asteartea.

Euskal jolasak  
Uztaileak 18, asteazkena.

Merendola  
Uztaileak 19, osteguna.

Kirol abentura



Uztaileak 19, osteguna.

Kirol abentura

Uztaileak 19, osteguna.

Kirol abentura

Uztaileak 19, osteguna.

## Turismo esperientzia

**Tolosako Babarrunaren Bidaia Ereitetik Platerera.** Uztaileak 22, igandea. 10.30-16.30. Olateaga Goikoa Baserrian (Urkizu, Tolosa). Urkizuko elkartean bazkaria.

Izena emateko: 943 697413, tour@tolosaldea.net, Sta. Maria plaza, 1 (Tolosa)

## Tolosa Kantari

Uztaileak 28, larunbata. 12.00. Agirre doktorearen plaza  
Abuztuak 25, larunbata. 12.00. Agirre doktorearen plaza

## Festak

**San Inazio auzoko festak.** Ibarra. Uztaileak 28-31. San Inazio auzoko festa batzordea eta Ibarra Udalak antolatuta  
**San Bartolome jaiak.** Ibarra. Abuztuak 22-26  
**Bedaio jaiak.** Bedaio, Tolosa. Irailak 7-9

## Zinea

**Ahate pasa.** Uztaileak 15 eta

16. Tolosa, Leidor. Film laburra, Koldo Almandozek zuzenduta. 12 min. ¿Y si vivimos todos juntos? pelikularekin batera.



**Ondar ahoak.** Uztaileak 22 eta 23. Tolosa, Leidor. Film laburra, Angel Aldarondok zuzenduta. 4 min. "Hysteria" pelikularekin.  
**Haurrentzako zinea.** Uztaileak 14, larunbata. Urkizu, Tolosa. Alurtxiki auzo elkartea.

## Erakusketa

**Ni Pinotxo naiz.** Irailaren 23a bitartean. Tolosa, Topic. "Ni Pinotxo naiz. Pinotxoren istorioa, inoiz kontatu ez dizuten eran".

## Energia eguna

**Energi egunak zurekin bai!** Uztaileak 18, asteazkena. Tolosa, Euskal Herria plaza. Kotxe elektrikoak, bizikletak, puntu interaktiboak, informazioa, puzgarriak eta umeentzako kotxe zirkuitua.

## langile eta langabetuentzat ikastaroak, doanik.

Lanbide eta Hezkuntza Sailak diruz lagunduen

Goi mailako ziklo formatiboak (D ereduari)  
- Sareko informatika sistemen administrazioa.  
- Administrazioa eta finantzak.  
- Erregulazio eta kontrol sistema automatikoak.  
- Metal eraikuntzak.  
- Fabrikazio mekanikoko produktzioaren programazioa.  
- Instalazio termikoak eta fluidodunak mantentzea.

- Instalazio elektriko eta automatikoak.  
- Mikroinformatika-sistemetan eta sareak.

Matrikula epea zikloetan:  
2012ko uztailearen Setik 11ra.

Eskaintza partziala  
- Goi mailarako zikloetarako sarrera frogara.

Erdi mailako ziklo formatiboak (D ereduari)  
- Soldadura eta galdaragintza.  
- Mekanizazioa.

Lanerako prestakuntza  
Ezagutu ezazu langile nahiz langabetuentzako formazio eskaintza irekia.

Orain da zure aukera informatu zaitez IKASTN-en.

Jo ezazu Tolosaldea GLHBiko bulegora.

Santa Luzia 17 - 20400 Tolosa

Telefonoa: 943.65.11.47 - 615.775.678

idazkaritza@tolosaldea.com  
www.tolosaldea.com

info@ikastn.com  
www.ikastn.com



## Goardiako farmaziak

**Ostirala, 6**  
Morant R.  
(Zabalarreta, 1)  
Tolosa

**Larunbata, 7**  
Olarreaga I.  
(korreo kalea 2)  
Tolosa

**Igandea, 8**  
Etxebeste Jesus M.  
(Gernikako arbola, 3)  
Tolosa

**Astelehena, 9**  
Bengoetxea E.  
(Kale Nagusia, 7)  
Tolosa

**Asteartea, 10**  
Morant R.  
(Zabalarreta, 1)  
Tolosa

**Asteazkena, 11**  
Bronte C.  
(korreo kalea 20)  
Tolosa

**Osteguna, 12**  
Bengoetxea E.  
(Kale Nagusia, 7)  
Tolosa

**Ostirala, 13**  
Iturriz, I  
(Euskal Herria, 3)  
Ibarra

**Larunbata, 14**  
Lejeune, Leyre  
Euskal Herria, 46  
Ibarra

**Igandea, 15**  
Morant R.  
(Zabalarreta, 1)  
Tolosa

**Astelehena, 16**  
Morant R.  
(Zabalarreta, 1)  
Tolosa

**Asteartea, 17**  
Olarreaga I.  
(korreo kalea 2)  
Tolosa

**Asteazkena, 18**  
Bengoetxea E.  
(Kale Nagusia, 7)  
Tolosa

**Osteguna, 19**  
Lejeune, Leyre  
Euskal Herria, 46  
Ibarra

**Ostirala, 20**  
Bengoetxea E.  
(Kale Nagusia, 7)  
Tolosa

## Telefono interesgariak

Alegia-Amezketak-Abaltzisketa-Albiztur	Gernikako Arbola,hitzor	943 006 900
Osasun zentroa	Amarozko dispensarioa	943 672 637
Altzo	Asunzion klinika	943 675 799
Medikua	(larrialdia)	943 675 390
Anoeta-Alkiza-Hernalde	San Kosme San Damian	
Medikua	geriatrikoa	943 672 932
Baliarrain	Udaltzaingoa	943 675 858
Medikua	Ur eta Argia (Tolargi)	943 650 016
	Ur zerbitzuak (aberiak)	639 352 156
Berastegi-Elduain	lurreamendi egoitza	943 670 325
Medikua	Larrialdia, Suhiltzaileak	112
Bidegoian	DYA	943 672 536
Medikua	Gurutze Gorria	943 674 888
Ibarra-Belauntza-Berrobi-Gaztelu-Leaburu		943 651 425
Osasun etxea	943 672 411	943 673 022
Ikaztegieta	Ertzantza	943 675 320
Medikua	Tolosa Gasa	
Irura	Lizartza	
Osasun zentroa	Medikua	943 682 077
Tolosa	Orendain	
Anbulatorioa, larriald.	Medikua	943 655 595
San Esteban, hitzordua	Orexa	
	Medikua	943 682 228

**KEY-LAN**  
SARRAILGINTZA

Nafarroa etorbidea, 13-behea  
20400 Tolosa  
Mobila: 670 417 922  
Tel./Faxa: 943 650 313

ARTESANIA  
**ZUEN TZART**  
esku esku  
arrunta berezi bihurtu!

GERNIKA, 4 TOLOSA  
ARTESANIAZUENTZART@EUSKALNET.NET  
TEL. 943 650 359

**TINDATEGIA**

**KATZ**

Laskorain kalea • TOLOSA  
Tel.: 943 652 618

**ARALAR KIROLAK**

Laskorain, 7 • TOLOSA  
Tel.: 943 654 916

## Muxutruk

### Lana

• Ingelesko eta frantseseko klaseak bakar-ka edo taldeka. Maila desberdinak. Irakasle tituluduna. 664 160268

• Sukaldari edo zerbitzari laguntzaile gisa lan bila nabil. Homologatutako titulua daukat. 671 44 66 15.

• Hortz-protetikoko tituluduna lan bila. 671 44 66 15.

• Klase partikularrak Tolosan. L.H. eta D.B.H. Gai guztiak. 645 710 789 (Ana). Banaka edo binaka. Esperientzia

• Emakumea, etxeko lanak egiteko eta pertsona helduak zaintzeko prest. 688 642 137

### Etxebizitza

• Pisua salgai Errementari kalean, 42 m2 eta erreforma egiteko. 620 129 295

• Ikaztegiatan 100 m2-ko 5. pisua salgai. 3 logela, sukaldea, egongela, komuna eta 2 trastero. Balkoi handi eguzkitsua. 637 914126

• Usurbilgo kaxkoan pisua salgai. 2 logela, sukaldea, sala, komuna eta trasteroa. Dena kanpokalde, hiru balkoi, eguzkitsua eta bista onekin. 240.405 Euro.- Premiazkoa da saltzea!! Tlf: 686969112

• Ibarran, ikasleentzako gela bat alokatzen da. 943 119839

### Salgai

• Quads-a salgai. Gargas K2 250 c.c. 2055 urtekoa, 2 lagunentzako homologatua. Prezio interesgarria. 618 254960. Ariz.

# Horoskopoa

Uztailaren 6tik irailaren 7ra arteko aurreikuspena



## aries

Martxoak 21-Apirilak 21

Urteetan landutako harremanek euren fruituak ematen hasiko dira. Orain baliagarriak zeintzuk diren aukeratzeko unean zaude. Bikotearekin komunikazioa ere inoiz baino errazagoa da.



## taurus

Apirilak 22-Maiatzak 21

Kontrola errazegi galtzen duzu eta horrek damua eragiten dizu, gainera, inguruarekin harremanak zailak dira azkenaldian. Bikoteari dagokionez, hasierako konkista baino ez zaizu interesatzen.



## gemini

Maiatzak 22-Ekainak 21

Helburuak eskuratzeko balantze erreala egitea ezinbestekoa da; porrotak eta mugak ulertu eta arrakastak aitortu. Burutazio mentalak alde batera uzteko unea duzu. Errepikatzen den amets horren atentzioa fokatu.



## cancer

Ekainak 22-Uztailak 22

Segurtasun ezaz zipritindutako sentimenduz askatzeko beharra duzu. Ez duzu elkarriketa sakon eta barne-hausnarketarako intenziarik. Hala ere, barne sentimendu horiek askatzeko erabateko beharra duzu. Lortuz gero, depresioa gaintzeko moduan izango zara.



## leo

Uztailak 23-Abuztuak 22

Pentsamendu sakona. Jakin-min ase-zina. Misterio eta ezkutuan dagoenarekiko lilura. Norbere arazoez hitz egiteko norbaitengan konfiantza izatea beharrezkoa izaten da. Hala ere, tentuz ibili goratasunekin.



## virgo

Abuztuak 23-Irailak 22

Zure burua gailentzen duzunean, besteek ere errespetatuko zaituzte. Bikotearentzat konpainiarik perfektuena zara. Horregatik, horrenbesteko dependentsia horrekin tentuz ibili behar zara, estresa sor dezake eta.



## libra

Irailak 23-Urriak 22

Muga ezberdinekiko urduri zaude. Emozioak zabaltzeko duzun behar horrek arazo bat baino gehiago sortuko dizu familiako kideekin. Duzuna baino gehiago apustuan jartzea ez da aukera baliagarria.



## scorpius

Urriak 23-Azaroak 22

Istripu larri batetik onik aterako zara, horrek hasteko bidea emango dizu. Sentimenduak azaltzeko arazorik ez duzu, baina oraingoan barne-hausnarketan murgilduko zara.



## sagitaris

Azaroak 23-Abenduak 21

Baikortasuna. Miresle bat baino gehiago duzu inguruan. Lanerako gaitasun azpimarragarria. Egiarekiko zorarena. Aldaketak baikorrak izaten dira eta usetekabeokak direnak gustuko dituzula argi dago.



## capricornius

Abenduak 22-Urtarrilak 20

Boteretsu ikusiko duzu zure burua. Zuhurra izatea gustuko baduzu ere, maitasunaren sarean erortzeko zorian zaude. Tentuz ibili maitasuna eta negoziok uztartzearekin.



## aquarius

Urtarrilak 21-Otsailak 20

Bakarrik sentituko zara eta horrek inguruarekin harremanak sortzean zailtasunak eragingo dizkizu. Besteen babesak jasotzeko zure jarrerari mesede egingo dio.



## piscis

Otsailak 21-Martxoak 20

Lan egoera ezagututa bikoteak baino ez dizu babesik emango. Ametsak beharrezkoak izaten dira, baita sentimenduen errealitatean ere. Lagunen artean berriro ere, zure tokia aurkitzea beharrezkoa da.

# IRABAZI AFARI BAT ZURE KUADRILLARENTZAT

Sagardoarekin lotutako hitz, esamolde edota esaldiak biltzen ari gara. Inoiz entzunak, zein asmatuak.

Bidali nahi adina proposamen: lehiaketa@sagardogorenak.com #gorenak

SARIA: 8 lagunentzako afaria GORENAK taldeko zuk nahi duzun sagardotegian.

Epea: Uztailaren 5a baino lehen. (Uztailaren 8ko Berrian jakingo da irabazlea). Epaimahaia: Joxerra Garzia, Arantxa Iturbe eta Xabier Paya.



Festaz-festa euskaldunak erderaz jartzen!

Ta Ibarran ia-ia!

Komikia: Joseba Antxustegiartek



WWW.SAGARDOGORENAK.COM

GUZTIOK NORABIDE BEREAN EGITEN DUGU ARRAUN. SEKULAKO EMAITZAK LORTUZ. LEHEN-LEHENAK IZATEKO.

HORREGATIK DARAMAGU SAGARDOEN EUSKAL SELEKZIOAREN TXAPEL BELTZA.




orain  
ingeleraz  
Jere bai!!



**TOLOSALDEA**

**GOIMAILAKO L.H.B. INSTITUTUA**



eskaintza akademikoa

arautua **goi mailako zikloak** (euskaraz)

- Sareko informatika sistemen administrazioa
- Administrazioa eta finantzak
- Automatizazio eta robotika industrialak
- Metal eraikuntzak
- Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa
- Instalazio termikoak eta fluidodunak mantentzea

**erdi mailako zikloak** (euskaraz)

- Soldadura eta galdaragintza
- Mekanizazioa
- Instalazio elektriko eta automatikoak
- Mikroinformatika-sistemak eta sareak

ez  
arautua

- Langileen etengabeko formazioa
- Langileen formazio espezifikoak
- Langabetuen formazioa

Tel: 943 651 147  
943 650 664

idazkaritza@tolosaldea.com  
www.tolosaldea.com

**aurrematrikula**

Maiatzaren 28tik  
Ekainaren 8ra

**matrikula  
epea**

Uztailaren 5etik 11ra

**zure etorkizuna ziurtatzen dugu!!**

- Lankidetzaren hitzarmenak 150 enprekin
- 2 urtetan ikasleen lan egoeraren jarraipena egiteko konpromisoa hartzen dugu

www.tolosaldea.com